

Sanpedroak ASTEASUn

Heldu dira berriz ere San Pedro jaiak. Gaur arratsaldean jaurtiko den txupinazioarekin hasiko da astebete luzeko jai ekitaldia. Sorginaren jaitsieraren bidez adieraziko da parranda egiteko eta ondo pasatzeko baimena ematen duela San Pedrok.

Sorgina jaitsi, jaiak hasi

JON OLASKOAGA

Azken urteetan bezala sorginaren jaitsierak adieraziko du jaien hasiera. Udaletxera iritsi aurretik ehun metroko jaitsiera egiten du sorginak. Tarte horretan bere ezkutuko botereak erabiltzen ditu herri guztian zehar zabaltzeko jaietan parte hartu eta ondo pasatzeko gogoak.

Txupinazioa, ohi den bezala, Segundok jaurtiko du. Herriko zaborbiltzaile ezagun hau saltsa guztietako perrexila da. San Pedro jairik ezin da ulertu Segundo gabe eta horregatik jaien hasiera adierazten duen txupinazioa jaurtitzeko «ohorea» berak du. Segundok bereari ekingo dio eta, zasti! txupinazioak zeruan eztanda egingo du. Sorgina jaisten hasiko da eta udaletxera iristean orduan helduko da sorginari 'bizia' emateko unea.

Aitzol Txapartegi agertuko

EGITARAUA

GAUR

- 16.00 Asteasuko XIX. Txirrindulari Proba 1. eta 2. mailako afizionatuentzat.
- 19.30 'Zahagi ardoa' eskainiko da Herriko Plazan.
- 20.30 Txupinazioa, sorginaren jaitsiera eta kalejira.
- 22.30 Dantzaldia Maixa eta Itziar trikitilariekin.

BIHAR

- 11.00 Meza nagusia. 11.00 Hour parkea zabalduko da.
- 12.15 Elizmendiko jaiak.
- 12.45 Pilota partiduak.
- 17.00 Biatloi proba herrikoia. Hour parkea.
- 18.30 Ozenki taldea.
- 18.30 Dantzariak.
- 22.30 Egan taldea.

zaigu urtero bezala sorgin jantzi-ta. Antza denez, bera baino pertsona egokiagorik ez dago sorginarena egiteko eta agian denbora luzean izango dugu Asteasuko sorgin ofizialtzat. Oihuak eta garrasiak botatzen primerakoa omen da Aitzol. Jaiak berotzen ditu hasten diren unetik. Ondoren kalejira egiten da eta asteasu guztien partaidetza azpimarratzekoa da.

Dantzazaleentzako ez da azken aukera izango. Gaueko 10.30etan Maixa eta Ixiarrek trikiti saio bikaina egingo dute. Dantzan iaiaok direnek badute beren trebeziak azaltzeko modua. Ez larritu fandangoa eta arin-arina menderatzen ez duzutenok. Gauetz akatsak ikustea zailagoa da.

Bapo meriendatzeko aukera bikaina

Txupinazioa jaurti baino lehen bada beste ekintza aipagarrikerik San Pedro bezperan. Txirrindulari lasterketa amaitu ondoren 'zahagi ardoa' eskainiko da. Ekitaldi bitxi honek tripazain amorratuak direnentzako Sanpedroetan antolatzen denetik gauzarik onena izango da. Herriko Plazan egoteko aukera duenak, txorizo egosia, antxoak eta nahi adina ardo dastatzeko moduan izango da. Giroa benetan polita izaten da eta batek baino gehiagok meriendatxo honekin afaria egingo du.

'Zahagi ardoa' dastatzeko moduan izango dira lehen eta bigarren mailako afizionatuentzako Asteasuko XIX. Txirrindulari Proban parte hartzen duten guztiak. Kirola egiteak gosea eragiten omen du. Kilometro pila egin ondoren, eta egiten duen beroarekin gainera, merezi dute indarberritzeko sabela ondo betetzea.

.....jaiak dira gainera.....

ARBIZUN

- 8.30: Diana.
- 11.00: Gimnasia erritmikoa.
- 12.30: Gaztetxoeren pilota partiduak.
- 16.00: Ginkama.
- 17.30: Herritarren arteko herri kirolak.
- 12.00etatik 3.30etara: Dantzaldia Iratxo taldearekin.

BIASTERIN

- 17.30: Erakusketa eremuan, Erakusketa Txakurren Lehiaketa, Bisteriko 'Recilla' ehiztari eta arrantzale elkarteak antolatuta.
- 00.00: Aurtengo jaietako bigarren eta azken su festa kirol guzuean, Pirotecnia Zaragozana etxearen eskutik.
- 00.30etatik goizaldera arte: Saldua orkestrak eskainitako dantzaldia.

DONEZTEBEN

- 20.00: herriko etxetik etxaferua botako da, eta segidan, Makoki txaranga eta txistulariak karrikaz karrika.
- 00.30etatik goizaldera arte: Makoki txarangarekin animazioa.


HAZPARNEN

- 9.00: Azoka handia goiz guztian. Karriketan musika taldeak.
- 17.00: Trotineta txapelketaren bigarren jokaldia.
- 18.00: Bizikleta lasterketa, Saliseko bizikletari taldeak antolatuta.
- 19.00: Nahi duenarentzat, mokadutxo plazan, musika giroan.
- 21.30: Lau klika elkarrekin: Makea, Urkoi, Hazparne eta Izuritze.
- 22.30: Lehengo dantzaldia Beñat Elizondorekilan.
- 24.00: Zezen-suzkoa.
- Egunez eta gau guztian zehar: Samasiku eta Ezkurak txaranga, Hazparneko txistulariak, Biligarroak, Baiona eta Baigorriko gaiteroak,

Zaldibiko trikitixa.


LASARTEN

- 12.00: Txupinazioaren jaurtiketa udaletxetik. Txaranga, buruhandi eta erraldoiak.
- 12.00: Zahar Etxeko partaideen gimnasia erakusketa udal polikiroldegian.
- 18.00: Zezenak hilerri ondoko zelaietan.
- 18.00: Zahar Etxean, 'Mikro librea' (kantak, txisteak, poesia) eta sarien banaketa lehiaketetako irabazleei.



PATXINE JATETXEA

GURE BEREZITASUNA:
EUSKAL SUKALDARITZA
ETA ETXEKO POSTREAK



Herreros, 1

Tel.: 69 10 25

20159 ASTEASU

Egunkaria

IRAGARLE APARTA: (943)469022

ASTEASUKO



UDALA

ASTEASUKO UDALAK FESTA ALAIK

OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI

LEKEITION

- 18.30: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariekin batera.
- 20.30: Musika bandaren kalejira.

LEABURUN

- 21.30: Herri afaria.
- Ondoren: Trikitixa A. Etxezarreta eta J.R. Iturbe bikotearekin.